



Abaro sektorearen egoera eta eman beharreko urratsak: babes ofizialeko etxebizitzak eta institutuaren handitzea

- 1. Abaro beharrezko proiektua da, baina hobetu daiteke... eta berandu dator.** Gure asmoa proiektu hori hobetzea eta bultzatzea izan da: 2012an bezala, nahiago ditugu 390 **Babes Ofizialeko Etxebizitza errealak**, paperean irudikatutako balizko 500 baino, eraiki gabeak... **Nahiago dugu** Institutu handituko dela ziurtatzea.
- 2. Udal teknikariek Abaroko Plan Partzialari egin dizkiogun alegazioei emandako erantzunak ontzat jotzen ditugu;** beraz, jabeek Plan Partzialaren behin betiko idazketan sartuko balituzte, Plan horren onarpena ahalbideratuko genuke.
- 3. Horrela, EH Bilduk ateak zabalik uzten ditu** Institutua handitzeko eta Sopelako etxebizitza-arazoak konponduko lituzketen BOEak eraikitzeko. Baina **orain ez dagokio EH Bilduri egoera desblokeatzea.** Pilota EAJ/PSE gobernu-taldearen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren eta Abaroko jabeen Teilatuan dago.
- 4. Jabeei eskatzen diegu** gure hobekuntza-proposamenei buruz Udalak egindako txosten teknikoak onar ditzatela eta Plan Partzialaren behin betiko idazketan sar ditzatela.
- 5. EAJ/PSEren gobernu-taldeari eskatzen diegu** beharrezkoa dena egin dezala Sopelako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak 2012an sinatutako akordioa ahalik eta lasterren berrargitaratzeko, alkatetzan egon zenean EH Bilduk egin zuen bezalaxe.
- 6. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu** akordio hori ahalik eta lasterren berrargitaratzeko borondate politikoa izatea, hau da, konpromiso formala har dezala Abaron BOEak eraikitzeko.